A AUKERA	**HASIERAKOA**			**BAXU-ERTAINA**			**EGOKIA**			**BIKAINA**		**NOTA**
Neurri eta proportzio egokiak erabiltzea. 2,5 p.	0	0,25	0,5	0,75	1	1,25	1,5	1,75	2	2,25	2,5	
Osatu beharreko datuen sormen-gaitasuna. 2,5 p. ***Oharra**	0	0,25	0,5	0,75	1	1,25	1,5	1,75	2	2,25	2,5	
Aukeratutako teknika egoki erabiltzea eta menderatzea. 2,5 p.	0	0,25	0,5	0,75	1	1,25	1,5	1,75	2	2,25	2,5	
Bolumenaren, irudia-ren eta hondoaren irudikapena. 2,5 p.	0	0,25	0,5	0,75	1	1,25	1,5	1,75	2	2,25	2,5	

OHARRAK / AIPAMENAK / NABARMENTZEKOAK

***Oharra:** Emandako ereduaren irudikapen koherente bat egitea baloratuko da (derrigorrezkoa), baita egon daitezkeen proposamen kreatiboagoak ere; adibidez, mugimendu artistiko bati keinu egiten diotenak edo irudikapen ez-naturalista bat irudikatzen dutenak (aukerakoa da ikusten ez den profila irudikatzeko).*

B AUKERA	**HASIERAKOA**			**BAXU-ERTAINA**			**EGOKIA**			**BIKAINA**		**NOTA**
Ahokatzea eta proportzioak mantentzea. 3 p.	0	0,3	0,6	0,9	1,2	1,5	1,8	2,1	2,4	2,7	3	
Teknika menderatzea. 3 p.	0	0,3	0,6	0,9	1,2	1,5	1,8	2,1	2,4	2,7	3	
Irudikapen bolumetriko zuzena eta irudiaren tonuen bereiztea. 3 p.	0	0,3	0,6	0,9	1,2	1,5	1,8	2,1	2,4	2,7	3	
Azken akabera (batasuna eta koherentzia). 1 p.	0	0,1	0,2	0,3	0,4	0,5	0,6	0,7	0,8	0,9	1	

EHU

MARRAZKETA ARTISTIKOA II. EBALUAZIO ERRUBRIKA

A AUKERA	**HASIERAKOA**			**BAXU-ERTAINA**			**EGOKIA**			**BIKAINA**		**NOTA**
Neurriak eta proportzio egokiak erabiltzea. 2,5 p.	0	0,25	0,5	0,75	1	1,25	1,5	1,75	2	2,25	2,5	
Osatu beharreko datuen sormen-gaitasuna. 2,5 p.	0	0,25	0,5	0,75	1	1,25	1,5	1,75	2	2,25	2,5	
Aukeratutako teknika egoki erabiltzea eta menderatzea. 2,5 p.	0	0,25	0,5	0,75	1	1,25	1,5	1,75	2	2,25	2,5	
Bolumenaren, irudiaren eta hondoaren irudikapena. 2,5 p.	0	0,25	0,5	0,75	1	1,25	1,5	1,75	2	2,25	2,5	

Neurri eta proportzio egokiak erabiltzea. 2,5 p.

- *Alboko ikuspegitik aurrekoak ateratzerakoan, garrantzitsua da elementu nagusien kokapena errespetatzea, alegia, horizontalki ongi eramatea. Begiak, sudurra, lepoa, sorbalda, jantzien ezaugarri esanguratsuenak, etab. Egokitasun hori baloratuko da.*

Osatu beharreko datuen sormen-gaitasuna. 2,5 p.

- *Datuak osatzerakoan, beti egongo dira asmatu beharreko neurriak eta elementuak, esate baterako, zabalerak erabakigarriak dira: aurpegiarena, begi eta begi bitartearena, ahoarena, sorbaldena, etab.*
- *Kapelaren bat baldin badarama, albotik ikusterakoan koherentzia mantendu beharko luke, eta janzkerekin berdin.*
- *Hondoarekin ere jokatu behar dute. Agertzen den figurarekin koherentea izan behar du asmatutakoak. Zurian uzteak ez du laguntzen.*
- *Bestalde, nahiz eta beharrezkoa izan ez, proposamen kreatiboak ere onartuko dira, aurpegiaren erdiarekin (ikusten ez denarekin, aurrez begiratuta ikuslearen ezkerraldea, figuraren eskuina) mugimendu artistiko bati keinu eginez edo irudikapen ez-naturalista bat osatuz.*

Xede hauek denak baloratuko dira.

Aukeratutako teknika egoki erabiltzea eta menderatzea. 2,5 p.

Prozedura edo teknika aukeratzean, nahasiak ere izan daitezke, figura modu estetiko eta sentikorrean islatzeko eta irudikatzeko trebetasuna baloratuko da.

Bolumenaren, irudiaren eta hondoaren irudikapena. 2,5 p.

Bolumenaren, eta, honekin batera, irudi eta hondoaren arteko harreman eta oreka harmoniko eta funtzionala, modu egoki eta sentikorrean errepresentatzeko gaitasuna baloratuko da.

EHU

MARRAZKETA ARTISTIKOA II. EBALUAZIO ERRUBRIKA

B AUKERA	**HASIERAKOA**			**BAXU-ERTAINA**			**EGOKIA**			**BIKAINA**		**NOTA**
Ahokatzea eta proportzioak mantentzea. 3 p.	0	0,3	0,6	0,9	1,2	1,5	1,8	2,1	2,4	2,7	3	
Teknika menderatzea. 3 p.	0	0,3	0,6	0,9	1,2	1,5	1,8	2,1	2,4	2,7	3	
Irudikapen bolumetriko zuzena eta irudiaren tonuen bereiztea. 3 p.	0	0,3	0,6	0,9	1,2	1,5	1,8	2,1	2,4	2,7	3	
Azken akabera (batasuna eta koherentzia). 1 p.	0	0,1	0,2	0,3	0,4	0,5	0,6	0,7	0,8	0,9	1	

Ahokatzea eta proportzioak mantentzea. 3 p.

Ematen zaien Din A4tik A3ra ahokatzeko gaitasuna, azalera bikoiztean neurriak egokitzea alegia, eta argazkiaren barne atalen proportzioak mantentzeko gaitasuna baloratuko da.

Teknika menderatzea. 3 p.

Aukeratutako prozeduraren erabileraren trebetasuna baloratuko da, beti ere hiru arkatzen edo "trois crayons" teknikaren arima galdu gabe. Helburua ez da marrazki errealista bat egitea (egin daitekeen arren), bolumenaren adierazpen egokia sortzea baizik, "trois crayons" teknikak argilun azkar bat sortzeko ematen duen aukerarekin. Horretarako, proposamenean esaten diren koloreak bakarrik erabili behar dira, eta ez besterik.

Irudikapen bolumetriko zuzena eta irudiaren tonuen bereiztea. 3 p.

Argazki erreal bat izanik, koloreduna, tonuetara itzultzeko gaitasuna baloratuko da, eta, aldi berean, bolumenak adierazteko gaitasuna.

Azken akabera (batasuna eta koherentzia). 1 p.

Hiru arkatzen teknika nola erabilia izan den, bolumena eta tonu zuzenak adieraziz, marrazki sentikor eta harmonikoa bilatuz, eta, aldi berean, batasuna eta koherentzia galdu gabe, azken akabera baloratuko da.

EHU